

9/2023 FORU ARAUA, abenduaren 15ekoa, fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun-zergarena (BAO Abenduaren 26koa)

Jakinarazten dut ezen Bizkaiko Batzar Nagusiek 2023ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran onartu dutela 9/2023 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun-zergarena, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dudala, araua aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

ABENDUAREN 15EKO 9/2023 FORU ARAUA, FORTUNA HANDIEN GAIKOE ALDI BATERAKO ELKARTASUN ZERGARI BURUZKOA

HITZAURREA

Abenduaren 27ko 38/2022 Legeak, batetik, energiaren gaineko eta kreditu-erakundeek zein kredituko finantza-establezimenduen gaineko aldi baterako kargak ezartzen ditu; bestetik, fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga sortzen du, eta, azkenik, zenbait tributu-arau aldatzen ditu. Hain zuzen, 3. artikularen bidez sortzen da fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga, zuzeneko tributu gisa, izaera pertsonalarekin, ondarearen gaineko zergaren osagarria delarik. Izan ere, ondarearen gainekoak pertsona fisikoen 3.000.000 de eurotik gorako ondare garbia zergapetzen du.

Zerga hori sortzen duen legeak xedatzen du ezen hura Espainiako lurralde osoan aplikatuko dela, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, hurrenez hurren, indarrean dauden itun eta hitzarmen ekonomikoetako zergen foru-erregimenak.

Aipatutako legearen zioen azalpenak berak ezartzen duenaren arabera, zergak helburu harmonizatzailea du, autonomia-erkidegoetan ondarearen kargari dagokionez dauden aldeak murriztu nahi ditu, batez ere alde handirik egon ez dadin ondarearen gaineko zerga osorik edo zati batean desfiskalizatu duten autonomia-erkidegoetan bizi diren zergadunen zerga-kargaren eta zerga horren tributazioa murriztea erabaki ez duten autonomia- erkidegoetako zergadunen zerga-kargaren artean.

Kontuan izan behar da ezen, araubide erkideko autonomia-erkidegoen finantzaketa-araubidearen arabera, ondarearen gaineko zergaren etekina erabat laga zaiela autonomia-erkidegoei eta ondoriozko kuotaren zenbatekoa zehazteko elementu erabakigarrien gaineko araugintza-ahalmena aitortu zaiela. Horrek fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga sortzeko legean aipatzen diren kasuak eragin ditu, baina haien inguruko argudioak ezin dira aplikatu Bizkaiko Lurralde Historikoan, lurralde honetan ez baita egin gorago adierazitako desfiskalizazioa.

Aurrekoa gorabehera, beharrezkotzat jotzen da tributua ezartzea, ondare oso handiak dituzten herritarrek zergak beren ahalmen ekonomikoaren arabera ordain ditzaten, Espainiako Konstituzioaren 31. artikuluan aurreikusitako moduan.

Indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren —maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitakoa— 1. artikulua honako hau ezartzen du: Lurralde historikoetako erakunde eskudunek lurralde bakoitzeko tributu-araubideari eutsi eta hori ezarri eta arautu ahalko dute; eta: Lurralde historikoetako tributu-sistema osatzen duten tributuak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea foru-aldundiei dagokie, nori bereak.

Oro bat, Ekonomia Itunaren bigarren xedapen gehigarriak hau xedatzen du: Estatuak zergei buruz duen antolamendu juridikoan berrikuntzaren bat gertatuko balitz eta berrikuntza horrek zergen itunari eragingo balio, edo araugintzarako eskumenen banaketa aldatuko balitz eta

aldaketak zeharkako zergapetzearen eremuari eragingo balio, edo zerga- figura edo konturako ordainketa berriren bat sortuko balitz, bi administrazioek, ados jarrita, antolamendu horretan izandako aldaketetara egokituko lukete ekonomia-itun hau.

Azaldutako prozedurarekin bat etorritik, eta kontuan hartuta Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak foru-lurraldeen eskubide historikoen aitortzea, babesa eta errespetua aldarrikatzen dituela, bai eta eskubide horien eguneratzea ere —abenduarien 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 41. artikuluan xedatzen da eguneratze hori—, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Madrilen bildu zen, 2022ko abenduaren 27an, eta haren lehenengo erabakian gauzatu da Ekonomia Itunaren beraren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa, fortuna handien aldi baterako elkartasun-zergari dagokionez.

Erabaki horren edukia Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi dute otsailaren 15eko 3/2023 Foru Arauaren bidez, zeinak berresten dituen Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko azaroaren 17ko lehenengo erabakia eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko abenduaren 27ko lehenengo erabakia. Azkenik, erabakiaren edukia indarrean dagoen Ekonomia Itunaren testuari erantsi zaio, apirilaren 3ko 9/2023 Legea onartu eta BOEn argitaratuz. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen du.

Ondorioz, berridatzi egin da Ekonomia Itunaren bosgarren xedapen gehigarria, zeinak hau xedatzen baitu: Fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga, ondarearen gaineko zergaren osagarria, tributu itundu bat da, araudi autonomokoa. Ekonomia Itun honen 24. artikuluan ezarritako modu berean eskatuko da, eta fortuna handien aldi baterako elkartasun-zergak indarrean jarraitzen duen ekitaldi guztietan izango ditu ondorioak.

Hala, 38 artikulua eta bi azken xedapen dituen foru-arau honen bidez, fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga eratzen da, eta honela definitzen da 1. artikuluan: zuzeneko tributua da, izaera pertsonalekoa, eta ondarearen gaineko zergaren osagarria da. Pertsona fisikoen 3.000.000 eurotik gorako ondare garbia zergapetzen du.

Bestalde, 2. artikulua aplikazio-eremua arautzen du, ondarearen gaineko zergaren antzeko baldintzetan. Azken horretan ez bezala, fortuna handien aldi baterako elkartasun- zergaren zerga-egitatea da sortzapenaren unean zergaduna 3.000.000 eurotik gorako ondare garbiaren titularra izatea, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bestalde, zerga osatzen duten elementu nagusei buruzko artikulua, hala nola, ondasun eta eskubide salbuetsiei, zergadunei, edo sortzapenari buruzko artikuluek Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauan jasotako erregulazio bera dute.

Kuota osoari dagokionez, foru-arau honek karga-eskala progresibo bat du, eta gehieneko ehunekoa %3,5 da, likidazio-oinarriaren tarterik altuenerako.

Bestalde, 30. artikulua kuota osoaren muga arautzen du, eta ezartzen du, betebeharrak pertsonalaren zioz zergaren pean dauden zergadunen kasuan, zerga honen kuota osoaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren kuota osoaren baturak ezin izango duela gainditu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren ehuneko 60. Hala ere, hiru zergen kuoten baturak aurreko muga gainditzeko badu, zerga horren kuota murriztu egingo da, ezarri den mugara ekarri arte, baina murrizketa ezin izango da inola ere izan %80tik gorakoa.

Tributuaren osagarritasunarekin bat etorritik, foru-arau honen 32. artikulua ezartzen du foru-arau honetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko kuotari ekitaldian benetan ordaindutako ondarearen gaineko zergaren kuota kenduko zaiola, eta zergadunek zergaren aitortzea aurkeztu beharko dutela baldin eta zerga-kuota ordaintzea badagokie, kuota hori zerga arautzen duten arauen arabera zehaztu ondoren eta dagozkion kenkariak edo hobariak aplikatu ondoren. Ogasun eta Finantza Saileko titullarren foru-agindu bidez ezarritako eran, epeetan eta ereduaren aurkeztu beharko dute aitortzen hori.

Azkenik, azken xedapenean xedatutakoaren edukia nabarmendu behar da; izan ere, xedatzen du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean, eta egun horretatik aurrera fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga sortzen den ekitaldietan aplikatuko dela, Ekonomia Itunaren bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapena, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. apartatueta xedatutakoa betez, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru-arau honi, baita genero-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena ere.

Halaber Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan (Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena) ezartzen diren izapideak bete dira.

1. artikulua. Zergaren izaera eta xedea.

Fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga zuzeneko tributua da, izaera pertsonalekoa, eta ondarearen gaineko zergaren osagarria. Pertsona fisikoen 3.000.000 eurotik gorako ondare garbia zergapetzen du, foru-arau honetan aurreikusitako baldintzetan.

Zerga honetan, zergadunaren titulartasunpeko eduki ekonomikodun ondasun-eskubideen multzoa izango da haren ondare garbia, baina, hura kalkulatzeko, deduzitu egingo dira ondasun-eskubideen balioa gutxitzen duten zamak eta kargak, bai eta zergadunak aurre egin beharreko zor eta betebeharrak ere.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Bat. Foru-arau honetan xedatutakoa zergadun hauei aplikatuko zaie:

- a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela-eta Bizkaiko Foru Aldundiaren zergadun diren pertsona fisikoei; zergak haien ondare garbi osoa kargatuko du, edozein dela ere tributatu behar duten ondare-elementuok dauden lurraldea.
- b) Betebeharrak errealaren zioz, Espainiako lurraldean egoitza ez duen pertsona fisiko guztiei, baldin eta, batetik, Espainiako lurraldean finkatuta dauden ondasun eta eskubide batzuen titular badira, eta, bestetik, ondasun-eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean egonik, Bizkaiko Lurralde Historikoan finkatuta dauden balioa gainerako lurralde historikoetako bakoitzean daudenena baino handiagoa bada.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondasun-eskubideak lurralde jakin batean finkatutzat joko dira baldin eta lurralde horretan kokatuta badaude, lurralde horretan erabili badaitezke edo lurralde horretan bete behar badira.

Espainiako lurraldean kokatuta dauden eskubide edo ondasunengatik soilik eskatuko zaio zergadunari zerga, Foru Arau honen 8. artikuluko Lau apartatuan xedatzen dena kontuan hartuta.

- c) Beren azken egoitza Bizkaian izan duten baina jada Espainiako lurraldean egoitza ez duten pertsona fisikoei, baldin eta Bizkaian tributatzea hautatzen badute betebeharrak pertsonalaren arabera. Aukera horretaz baliatzeko, zerga honi dagokion aitortpena aurkeztu behar dute Bizkaiko egoiliar izateari uzten dioten lehenbiziko ekitaldian.
- d) Espainiako Estatuak atzerrian dituen ordezkari eta funtzionarioei zein atzerriko organismo, erakunde edo estatuak Espainian dituztenei; zerga honen mende egongo dira betebeharrak pertsonal edo errealaren zioz, eta, hori erabakitzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko arauetan halako zergadunentzat ezartzen dena hartuko da aintzat.

Bi. Ohiko egoitza zen den zehazteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Hiru. Halaber, testamentu-ahalordea baliatzearen zain dauden jaraunspenen ondare garbiari aplikatuko zaio foru-arau hau, eta urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauan (Bizkaiko Lurralde Historikoaren tributu-sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen duena) ondarearen gaineko zergari buruz jasotako berezitasunak aplikatuko dira, ezertan galarazi gabe foru-arau honen 30. artikuluan xedatutakoa.

3. artikulua. Zerga-egitatea.

Zerga honen zerga-egitatea hau da: zergaren sortzapen-unean, zergaduna 3.000.000 eurotik gorako ondare garbiaren titularra izatea. Ondare garbi hori foru-arau honen 1. artikuluan aipatzen dena izango da.

Aurreko sortzapen-unean zergadunarenak ziren ondasun-eskubideak ere haren ondarekotzat joko dira, salbu eta ondare-eskubideok eskualdatu edo galdu egin dituela frogatzen bada.

4. artikulua. Ondasun eta eskubide salbuetsiak.

Zerga honetatik salbuetsita egongo dira Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera ondarearen gaineko zergatik salbuetsita dauden ondasun eta eskubideak.

Halaber, aplikatzekoak izango dira, hala badagokio, foru-arau horretan ezarritako zerga-oinarriaren murrizketak.

5. artikulua. Zergadunak.

Zerga honen zergadun dira foru-arau honen 2. artikuluko Bat apartatuan aipatzen diren pertsona fisikoak.

6. artikulua. Espainiako egoiliar ez diren zergadunen ordezkariak.

Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliar ez diren zergadunek egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan daukan pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute Zerga Administrazioaren aurrean ordezkaria ditzan, zerga hau dela-eta dituzten betebeharrei dagokienez. Zergaren aitorpena egiteko epea amaitu baino lehen izendatu beharko dute ordezkari hori.

Europako Esparru Ekonomikoko kide izan baina Europar Batasunekoak ez diren estatuen kasuan, aurrekoa ez da aplikatuko estatu horiekin, tributuei eta diru-bilketari buruzko informazioaren trukearen arloko elkarren laguntzari buruzko araudia dagoenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako moduan.

Aurreko betebeharrak bera izango dute, zerga-egitatea gauzatu ondoren, Espainiatik irteten diren zergadunek, helmuga duten hirugarren estatua ez bada Europar Batasuneko edo tributuei eta diru-bilketari buruzko informazioaren trukearen arloko elkarren laguntzari buruzko araudia duen Europako Esparru Ekonomikoko estatu bat, zergaren aitorpena aurkeztu baino lehen alde egin badute. Salbuespen hau izango da: aitorpena aurkezteko arauzko epea amaitu aurretik itzuliko badira.

Izendapen horren berri emango zaio Zerga Administrazioari, eta ordezkariaren berariazko onarpena ere bidali behar dute jakinarazpen horrekin batera.

7. artikulua. Ondare-elementuen titulartasuna.

Ondasun eta eskubideak zergadunei egozteko, kontuan hartuko dira, batetik, zein diren titulartasun juridikoari buruz kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauak eta, bestetik, zein diren zergadunek eurek ekarritako frogak nahiz Administrazioak berak aurkitutakoak. Horri dagokionez, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ondare- elementuen titulartasunari buruz eta prezio geroratuan edo jabari-erreserbarekin eskuratutako ondasun edo eskubideei buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

8. artikulua. Zerga-oinarria.

Bat. Zerga honen zerga-oinarria zergadunaren ondare garbiaren balioa da.

Bi. Ondare garbia kalkulatzeko, honako hauen arteko kenketa egingo da:

- a) Batetik, zergadunaren titulartasuneko ondasun-eskubideen balioa, hurrengo artikuluetako arauen arabera zehaztutakoa.
- b) Bestetik, edo izaera errealeko zamak eta kargak, baldin eta dagozkien ondasun- eta eskubideen balioa gutxitzen badute, edo zergadunak aurre egin behar dien zor eta betebeharrak.

Hiru. Aurreko atalean xedatzen dena gorabehera, ondare garbia zehazterakoan ez dirakenduko ondasun salbuetsiei dagozkien zamak eta kargak.

Lau. Tributatzeko betebeharrak erreala dagoenean, bakarrik izango dira kengarriak Espainiako lurraldean dauden edo bertan erabili ahal diren edo bertan bete behar diren ondasun-eskubideei dagozkien zamak eta kargak, bai eta ondasun horietan inbertituriko kapitalen ziozkozorrak ere.

9. artikulua. Ondasun higiezinak.

Bat. Hiri- edo landa-izaerako ondasun higiezinak honako zenbaki hauetan ezartzen denaren arabera jasoko dira:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden ondasun higiezinak badira: Oro har, haien gutxieneko balio eratzikigarriaren %50.

Landa-izaerako ondasun higieziei dagokienez, ez baldin badute gutxieneko balioeratzikigarriak, haien katastro-balioa hartuko da kontuan, baldin eta berrikusi edo aldatu egin bada. Balio hori eguneraturik ez badago, indarreko katastro-balioa bider hamar biderkatuko da.

- b) Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo dauden ondasun higiezinak badira, haien katastro-balioa.
- c) Ondasun higieziek ez badaukate katastro-baliorik zergaren sortzapen-unean, edo atzerrian baldin badaude, haien eskuratze-balioaren ehuneko 50 konputatuko da, eta balio hori eguneraturik egon beharko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 45. artikuluan 2. zenbakian moneta- zuzenketari buruz aipatzen dituen koefizienteen arabera.

Bi. Ondasun higiezinak eraikitze-bidean daudenean, higiezin horretan zergaren sortzapen-egunera arte benetan inbertituriko zenbatekoaren %50 hartuko da ondare-baliozat, eta balio horri gehitu egingo zaio artikuluan honetan ezarritakoaren arabera orubearentzat kalkulaturiko ondare-balioaren %50a. Jabetza horizontala izanez gero, tituluan finkaturiko ehunekoaren arabera zehaztuko da orubearen balioari dagokion zati proportzionala.

Hiru. Hiru. Multijabetza kontratuak, denbora partzialeko jabetza-kontratuak edo antzeko formulak erabiliz eskuratutako ondasun higiezinaren gaineko eskubideak honako erregela hauen arabera balioztatuko dira:

- a) Higiezinaren titulartasun partziala badakarte, aurreko Bat ataleko erregelen arabera.
- b) Ez badakarte higiezinaren titulartasun partziala, ziurtagirien edo haiek ordezkatzeko dituzten tituluen eskuraketa-prezioaren %50aren arabera.

Eskuratze-prezioaren %50aren arabera balioztatuko dira, beren izaera edozein dela ere, honako lege honek jasotzen dituen eskubideak: 4/2012 Legea, uztailaren 6koa, turismo-

ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor-produktuak eskuratzeko kontratuei, birsaltze-kontratuei eta truke-kontratuei eta zerga-arauei buruzkoa.

10. artikulua. Ekonomia-jarduerak.

Pertsona fisikoek ekonomia-jarduerai atxikirik dituzten ondasunak eta eskubideak kontabilitatean duten balioaz hartuko dira kontuan, aktiboaren eta pasiboaren arteko kenketa eginez, baldin eta kontabilitatea Merkataritzako Kodearen arabera eginda badago. Dena dela, ibilgailu, ontzi eta aireontzien kasuan ez da horrela egingo; izan ere, kasu horietan, ondasun horiei guztiei foru arau honen 9. eta 17. artikuluetan, hurrenez hurren, ezartzen dena aplikatuz lortzen den balioa erabiliko da, salbu eta kontabilitate-balioa handiagoa denean manu horiek aplikatuz ateratzen dena baino.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera joko dira ondasunak ekonomia-jarduerai afektatutzat. Foru arau horren 27. artikuluko 5. eta 6. erregelatan aipatzen diren aktiboak, berriz, erregela horiek aktiboan gastuak kengarritzat jotzen dituzten hein berean joko dira afektatutzat.

Kontabilitaterik ezean, eta kontabilitatea ez bazaio lotzen Merkataritzako Kodeari, zergaren gainerako arauak aplikatzearen emaitza izango da balorazioa.

11. artikulua. Kontu korronteko edo aurrezki-kontuko gordailu agerikoak edo eperakoak.

Hirugarrenen konturakoak ez diren kontu korronteko edo aurrezki-kontuko gordailu agerikoak edo eperakoak, bai eta diruzaintza-kudeaketako kontuak nahiz finantza-kontuak eta antzerakoak ere, zergaren sortzapen-egunean duten saldoaz hartuko dira kontuan, baldin eta saldo hori urteko azken hiru hilekoko batez besteko saldoa baino txikiagoa ez bada, orduan azken hori aplikatuko baita.

Batez besteko saldo hori kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko ez zergadunaren ondarean jasota dauden ondasun-eskubideak eskuratu ahal izateko gordailuotatik ateratako funtsak, ez haren ondarean dauden beste kontu batzuetara aldatzeko ateratakoak, ez eta zorrak kitatu edo gutxitzeko atera direnak ere.

Mailegu edo kreditu baten ziozko zorraren zenbatekoa lehen leerroaldean aipatzen diren kontuetako batean sartu bada urteko azken hiru hilekoan, zenbateko hori ez da kontuan hartuko batez besteko saldoa zehazterakoan, eta, zor gisa ere, ez da kengarria izango.

12. artikulua. Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzan duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak.

Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzan duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatzen badira, urte bakoitzeko laugarren hiru hilekoan duten batez besteko negoziazio balioaren arabera konputatuko dira, edozein izanik ere baloreon izendapena, ordezkaritza eta lorturiko etekinen izaera.

13. artikulua. Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzan duten gainerako baloreak.

Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzan duten beste baloreak (alegia, aurreko artikulukoak ez direnak) balio nominalaren arabera konputatuko dira, eta amortizazio- edo itzulketa-primarik egonez gero, prima horiek ere batuko zaizkio balio horri, edozein izanik ere baloreen izendapena, ordezkaritza eta lorturiko etekinen izaera.

14. artikulua. Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkatzan duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak.

Bat. Edozein motatako erakundeen kapital sozialeko edo funts propioetako akzioak edo partaidetzak, merkatu antolatuetan negoziatzen badira, urte bakoitzeko laugarren hiru hilekoan

duten batez besteko negoziazio-balioaren arabera konputatuko dira; inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak, ordea, ez dira horrela konputatuko.

Bi. Merkatu antolatuetan kotizatzen duten erakunde juridikoek jaulki bai baina oraingo kotizazio ofizialean onartuta ez dauden akzio berriak harpidetzen badira, akzio horien balioa honako hau izango da: titulu zaharrek harpidetza-epearen barruan izan zuten azken negoziazio-balioa.

Hiru. Ordaindu gabe dauden kapital-zabalkuntzetan, aurreko arauekin bat etorritik balioztatuko dira akzioak, guztiz ordainduta baleude bezala, eta ordaindu gabe dagoen zatia zegadunaren zor legez sartuko da.

15. artikulua. Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkatzeko duten gainerako baloreak.

Bat. Aurreko artikuluan aipatutakoez bestelako akzioak eta partaidetzak direnean, haien balioa hau izango da: onetsitako azken balantzetik ateratzen den balio teorikoa, baldin eta balantze hori, nahitaez edo borondatez, berrikusi eta egiaztatu egin bada eta auditoriatxostena aldekoa izan bada.

Balantzea ez bada auditatu edo auditoria-txostena ez bada aldekoa izan, berriz, hiru balio hauetatik handiena hartuko da: balio nominala; onetsitako azken balantzetik ateratzen den balio teorikoa, edo zergaren sortzapen-eguna baino lehen itxitako azken hiru ekitaldietan erakundeak lortu dituen mozkinen batez bestekoa 100eko 20ko tasan kapitalizatuz lortzen den kopurua.

Horretarako, mozkin gisa konputatuko dira banatutako dibidenduak eta erreserbarako kopuruak, baina bazter utziko dira balantzeak erregularizatzeko edo eguneratzeko erreserbetarako kopuruak.

Bi. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare-funtseko akzioak eta partaidetzak konputatzeko, kontuan hartuko da akzio-partaidetza horiek zergaren sortzapen-egunean duten likidazio-balioa. Horretarako, balantzean sartutako aktiboak haien legeria zehatzean jasotako arauekin bat etorritik balioztatuko dira, eta hirugarrenetik betebeharrak kengarriak izango dira.

Hiru. Bazkideek edo kooperatiba-kideek kooperatibaren kapital sozialean duten partaidetzaren balioa zehazteko, kontuan hartuko da zer den ordaindutako ekarpen sozialek –n nahitaezkoek edo borondatezkoek- kooperatibak onartutako azken balantzean zuten zenbateko osoa; itzuli gabeko sozietate-galerak egonez gero, galerok kendu egingo dira.

Lau. Artikulu honetan xedatzen dena betetzeko, akzio eta partaidetzen balioztapen egokiak jasotzen dituzten ziurtagiriak eman beharko dizkiete erakundeek bazkide, elkarteko kide edo parte-hartzaileei.

16. artikulua. Bizi-aseguruak eta aldi baterako errentak edo biziartekoak.

Bat. Bizi-aseguruak zerga sortzen den unean duten erreskate-balioaren arabera zenbatuko dira.

Hala ere, zergaren sortzapen-egunean hartzaileak ez badu erabateko erreskate-eskubidea baliatzeko ahalmenik, aseguruaren zenbatekoa izango da zuzkidura matematikoak egun horretan hartzailearen zerga-oinarrian duen balioa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aldi baterako aseguru-kontratuei, heriotzaren edo baliaezintasunaren edo bestelako arrisku-berme osagarrien kasuan soilik jasotzen badituzte prestazioak.

Bi. Aldi baterako edo biziarteko errentak, hain zuzen diru-kapitala, ondasun higigarriak edo higiezinak ematearen ondorioz eratutakoak, zergaren sortzapen-datan duten kapitalizazio-

balioaren arabera zenbatu beharko dira, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan pentsioak eratzeko ezartzen diren arau berak aplikatuta.

Hala ere, bizi-aseguru batetik aldi baterako edo biziarteko errentak jasotzen direnean, horiek artikulua honen lehenengo apartatuan ezarritako balioan zenbatuko dira.

17. artikulua. Bitxiak, luxuzko larrukiak eta ibilgailu, ontzi eta aireontziak.

Zergaren sortzapen-egunean duten merkatu-balioa hartuko da aintzat hauek guztiak konputatzeko: bitxiak, luxuzko larrukiak, automobilak, bi edo hiru gurpileko eta 125 zentimetro kuboko edo gorako zilindrada duten ibilgailuak, atsedena edo kirol-ontziak, hegazkinak, hegazkin txikiak, belaontziak eta gainerako aireontziak.

Merkatu-balioa zehazteko, zergaren sortzapen-egunean ibilgailu erabilientzat indarrean dauden balioztapen-etaulak erabili ahal izango dituzte zergadunek. Taula horiek Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onesten ditu, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako zein Oinordetza eta Dohaintzen Zergarako.

18. artikulua. Arte-objektuak eta antigoaleko objektuak.

Bat. Arte-objektuak edo antigoaleko objektuak konputatzeko, objektuok zergaren sortzapen-egunean duten merkatu-balioa hartuko da aintzat.

Bi. Ondarearen gaineko zergaren Foru arauaren 5. artikulua lehen zenbakitik bosgarrenera artean jasotzen diren salbuespenak gorabehera, honako hauek hartuko dira arte-objektutzat eta antigoaleko objektutzat:

- a) Arte-objektuak: pinturak, eskulturak, marrazkiak, grabatuak, litografiak eta antzeko beste lan batzuk, baldin eta jatorrizkoak badira.
- b) Antigoaleko objektuak: ehun urte baino gehiago duten ondasun higigarriak (baliagarriak zein apaingarriak), baina arte-objektuak ez direnak, baldin eta azken ehun urteotan ez badira aldatu ondasunon jatorrizko ezaugarri nagusiak, aldakuntzak edo konponketak direla bide.

19. artikulua. Eskubide errealak.

Gozamen-eskubide errealak eta jabetza soila Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan adierazitako irizpideen arabera balioztatuko dira; hala nahi izanez gero, kasuan kasuko ondasunari foru arau honetako arauekin bat esleitu zaion balioa hartuko da erreferentzia moduan.

20. artikulua. Administrazio-emakidak.

Jabari edo titulartasun publikoko zerbitzuak edo ondasunak ustiatzeko administrazio-emakidak, euren iraunaldia gorabehera, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan adierazitako irizpideen arabera balioztatuko dira.

21. artikulua. Jabetza intelektual eta industrialaren ondoriozko eskubideak.

Jabetza intelektual eta industrialaren ondoriozko eskubideak, hirugarren batengandik eskuratutakoak badira, eskuraketa-balioaz sartu beharko dira eskuratzailaren ondarean, foru arau honetako 10. artikuluan ezartzen dena gorabehera.

22. artikulua. Kontratuen aukerak.

Kontratuen aukerak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuen gaineko Zergan ezartzen denaren arabera balioztatuko dira.

23. artikulua. Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasunak eta eskubideak.

Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasun-eskubideon kasuan, zergadunari eratzikigarriak badira, zergaren sortzapen-egunean duten merkatu-prezioa izango da ondasun- eskubideon balioa.

24. artikulua. Zorren balioztapena.

Bat. Zorren balioa zergaren sortzapen-egunean duten balio nominala izango da, eta behar bezala ziurtaturik daudenak bakarrik izango dira kengarriak.

Bi. Honako hauek ez dira kengarriak:

- a) Salbuetsitako ondasunak edo eskubideak eskuratzeko harturiko zorrak. Salbuespena partziala denean, zorren zati proportzionala izango da kengarria, hala badagokio.
- b) Bermaturiko zenbatekoak, harik eta abal-emailea zorra ordaintzera behartuta egon arte, hots, kobratzeko eskubidea zordun nagusiaren aurka erabili eta hark ordaindu ez duenera arte. Betebehar solidarioa egonez gero, abalaturiko zenbatekoak ez dira kengarriak izango, harik eta eskubidea abal-emailearen aurka erabiltzen ez den arte.
- c) Ondasun baten eskuraketako prezio geroratua bermatzen duen hipoteka, nahiz eta prezio geroratua edo bermaturiko zorra kengarriak izan.

Hiru. Ezein kasutan ez dira kengarri izango ondasunak edo eskubideak eskuratzeko harturiko zorrak, zor horrek ondasun-eskubideoi zerga honen arauen arabera dagokien balioa gainditzen duen zatian.

25. artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena.

Zerga-oinarria zehazteko, oro har, zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabiliko da. Zergei buruzko Foru Arauko 51. artikuluan jasotzen diren inguruabarretako bat gertatzen bada, zerga-oinarrien zeharkako zenbatespen metodoa aplikatuko da.

26. artikulua. Peritu-tasazioa.

Zergei buruzko Foru Arauaren 128. artikulua aipatzen duen peritu-tasazio kontrajarria bakarrik aplikatu dakieke foru arau honetako 17, 18 eta 23. artikuluetan aipatzen diren ondasun-eskubideei, salbu eta foru arau honetako 17. artikuluko bigarren lerroaldean xedatutakoa erabiltzen denean.

27. artikulua. Likidazio-oinarria.

Zerga-oinarriari 800.000 euroko zenbatekoa kenduko zaio, gutxieneko salbuetsia dela eta.

28. artikulua. Sortzapena.

Zerga urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da, eta zergadunak egun horretan bere titulartasunpean duen ondare garbian izango du eragina.

29. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren likidazio-oinarriari eskala honetan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, kopuru honetaraino (euroak)	Kuota (euroak)	Likidazio-oinarriaren gainerakoa, kopuru honetaraino (euroak)	Aplikatzeko tasa (portzentajea)
3.200.000,00	0,00	3.200.000,00	1,50%

6.400.000,00	48.000,00	6.400.000,00	1,75%
12.800.000,00	160.000,00	1.700.000,00	2,00%
14.500.000,00	194.000,00	Hortik gorakoak	3,50%

30. artikulua. Kuota osoaren muga.

1. Betebehar pertsonalaren zioz zergaren pean dauden zergadunen kasuan, zerga honen kuota osoaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren kuota osoaren batura ezingo da izan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren % 60 baino handiagoa.

Artikulu honetan aurreikusitako kalkulua egiteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan kuota osoaren mugari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira; hala ere, hiru zergen kuoten baturak apartatu honen lehen paragrafoan ezarritako muga gainditzen badu, zerga honen kuota murriztu egingo da, ezarri den mugara ekarri arte, baina murrizketa ezin izango da inola ere izan % 80tik gorakoa.

2. Familia-unitate bateko kideek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen baterako tributazioa egitea aukeratzen dutenean, familiako kideek zerga horretan eta ondarearen gaineko zergen sortutako kuota osoak batu behar dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ondarearen gaineko zergaren eta zerga honen baterako kuota osoari dagokion muga kalkulatzeko. Hala badagokio, egin beharreko murrizketa subjektu pasiboen artean hainbanatuko da zerga honetan dagozkien kuota osoen proportzioan, aurreko apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

31. artikulua. Atzerrian ordaindutako zergak.

Tributatzeke betebehar pertsonala badago, eta nazioarteko tratatuetan eta hitzarmenetan xedatutakoa gorabehera, atzerrian ordaindutako zergen ondoriozko kenkaria aplikatu ahal izango da zerga honetan, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako baldintzetan.

32. artikulua. Ondarearen gaineko zerga dela-eta sartu beharreko kuota.

Foru-arau honetan xedatutakoa aplikatuta ateratzen den kuotari ekitaldi horretan benetan ordaindutako ondarearen gaineko zergaren kuota kenduko zaio, eta ez da inola ere itzuli behar emaitza negatiboa, hala badagokio.

33. artikulua. Ondare-erantzukizuna.

Zerga honen ondorioz sortzen diren zorrak eta zehapenak —halakorik badago— Kode Zibilaren 1365. artikuluan aipatutakoen parekotzat hartuko dira, eta, beraz, ezkontideen araubidea ondasunen foru-komunikazioa bada, irabazpidezko ondasunetara edo irabazitako ondasunetara joko da zuzenean, Foru Ogasunaren aurrean halako zor edo zehapenengatik —halakorik badago— erantzuteko, baldin eta ezkontideetako batek hartutakoak badira.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena orobat aplikatuko zaie legez eraturako izatezko bikoteei, baldin eta bikote horretako kideek ezarritako ondare- eta ekonomia-araubideari Kode Zibileko manu hori aplikatu behar bazaio.

34. artikulua. Aitorpena.

Zergadunak behartuta daude aitorpena aurkeztera eta, hala badagokio, zerga-zorra ordaintzera, Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-agindu bidez zehazten diren leku, modu eta epeetan.

35. artikulua. Aitorpena aurkeztu behar dutenak.

Zergadunek aitorpena aurkeztu beharko dute, baldin eta dagokien zerga-kuota, zerga arautzen duten arauen arabera zehaztu ondoren eta dagozkien kenkariak edo hobariak aplikatu ondoren, ordaindu behar badute.

36. artikulua. Aitorpenaren aurkezpena.

Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-agindu bidez ezartzen diren modu, epe eta ereduetan aurkeztuko da aitorpena. Foru-agindu horrek ezarri ahal izango du aitorpenak noiz aurkeztu behar diren bitarteko telematikoen bidez, eta horretarako bete beharreko baldintzak.

Zergadunek aitorpenetan dagozkien datu guztiak bete beharko dituzte, ezartzen diren dokumentu eta frogagiriak erantsi, eta Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru- agindu bidez zehazten diren lekuetan aurkeztu.

Era berean, Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-agindu bidez, zerga honen aitorpena ondarearen gaineko zergaren aitorpenarekin batera aurkeztu behar dela ezarri ahal izango da.

37. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

Zerga hau dela-eta egindako arau-haustek Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

38. artikulua. Jurisdikzio-ordena.

Bide ekonomiko-administratiboa agortu ondoren, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da foru-arau honetan aipatzen diren gaietako edozein dela-eta Administrazioaren eta zergadunen artean gerta daitezkeen izatezko eta zuzenbideko eztabaidak ebazteko jurisdikzio eskudun bakarra.

AZKEN XEDAPEN

Azken xedapenetako lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantza Saileko titularrak beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte foru-arau hau garatzeko eta aplikatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru-arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta egun horretatik aurrera fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga sortzen den ekitaldietan aplikatuko da, Ekonomia Itunaren bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan.